

Sexismoa eta feminismoa hezkuntza testuinguruetan

Tesiaren egilea: Patricia Fernández Rotaetxe

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila/Institutua: Bilakaera eta Hezkuntzaren Psikologia Saila

Doktorego-programa: Psikodidaktika programa

Jakintza-arloa: Gizarte-zientziak eta humanitateak

Tesi-zuzendaria: Joana Jauregizar Alboniga-Mayor eta Nahia Idoiaga Mondragon

Tesiaren laburpena:

Badirudi XXI. mendeko gizartean, sexismoak eskolan ez duela lekurik eta hezkuntza-sistemak, hezkidetzaz baliatuz, sexismoaren kontra egiten duela etengabe (Ballarín, 2001). Hala ere, diskriminazioa eta injustizia nabarmenak dira gizartean (Ballarín, 2017), eta sexismoak bai gizartean eta bai hezkuntzan agerian edota ezkutuan jarraitzen duela egiaztatzen da (Bonilla-Algovia, 2021; Díaz eta Anguita, 2017). Hortaz, ezinbestekoa egingo zaigu irakasleek eta etorkizuneko irakasle-hezitzaileek generoaren eta sexismoaren inguruan izan ditzaketen ideiak, sinesmenak eta sentsibilitatea aztertzea; batez ere, ideia horiek eraldatuak izan behar badira, sexismo-maila jaisten lagunduko luketen hezkuntza esku-hartzeak diseinatzeko helburuarekin (Cárdenas *et al.*, 2010; Castro *et al.*, 2010; Lameiras eta Rodríguez, 2003; Lemus *et al.*, 2008; Torres *et al.*, 2005). Feminismoa ere ikertu da lan honetan, hezkuntza eraldatzailea izatea nahi baldin badugu, hezkuntza horrek feminista izan behar duela baitio Martinezek (2016), eta gu horrekin ados baikade.

Horrela, ikerlan honetan sexismoa eta feminismoa aztertu dira hezkuntzarekin lotutako ikasketak egiten dauden ikasleen artean, hau da, Haur Hezkuntzako Goi Mailako Teknikarien, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako graduetako ikasleen, eta Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta hizkuntzen irakaskuntzako irakasleen prestakuntzarako unibertsitate-masterreko ikasleen eta Ingeniaritza Eskolako ikasleen artean ere bai.

Ikerlana bi fasetan banatu da: lehen fasean, ikasleek sexismoaren eta feminismoaren inguruan dituzten ezagutzak eta ideiak modu zuzenean jaso dira, galdera irekien bidez; eta, bigarren fasean, ikasleen sexismo- eta feminismo-maila neurtzeko eskalak pasa dira, eta hezkuntza-testuinguruari lotutako beste aldagaiekin —hezkidetzarekiko jarrerekin, autoestimuekin, desiragarritasun sozialarekin eta gatazkak bideratzeko estiloarekin— duten erlazioa ere neurtu da. Lehen fasean, Reinert metodoa eta Antzekotasun analisisa erabili dira eta Iramuteq softwarearen bidez aztertu dira datuak; ikerketa deskriptibo korrelazionalan, jasotako emaitzak SPSS 26. bertsioarekin aztertu dira.

Parte-hartzaileen sexismoarekiko irudikapen esanguratsuenak jaso dira, eta, orokorrean, ikusi da, batetik, ikasleek sexismoa emakumeen kontrako indarkeriarekin lotu dutela, eta, bestetik, sexismoa genero-gutxiespen moduan definitu dutela. Azpimarratzekoa da parte-hartzaileek ez dutela espresuki aipatu emakumeenganako dagoen gutxiespena, nahiz eta historikoki kontrakoa frogatua izan den (Bosch *et al.*, 1992; Alberdi eta Matas, 2002; Pazos Morán, 2009; Medialdea, 2016). Feminismoari dagokionez, aurkitu da emakumeek, hezkuntza-maila altuagokoak direnean eta adinez nagusiagoak direnean, identifikazio feminista altuagoa aurkeztu dutela; orobat, aipatzekoa da hezkuntzaren alorreko ikasleek Ingeniaritza Eskolakoek baino identifikazio feminista altuagoa izan dutela. Ondorioz, esan daiteke sexismoa errotik kendu nahi bada, hezkuntza-sistemak lanean jarraitu behar duela.